



RASFF-EKO ALERTAK ETA
JAKINARAZPENAK
2007ko 1. LAUHILEKOA


elika

Fundación Vasca para la
Seguridad Agroalimentaria

Nekazaritzako Elikagaien
Segurtasunarako
Euskal Fundazioa

2007. urteko lehenengo lauhilekoan, Europako Informazio Azkarreko Sistemak (RASFF) guztira **912 alerten eta jakinarazpen** berri eman du. Jakinarazpen guztietatik, kutsadura-iturriei dagozkien portzentajeak hurrengoak dira:

Identifikatutako arriskuak	Portzentajea
Mikotoxinak / biotoxinak	%35
Kutsadura kimikoa	%22.5
Kutsadura biologikoa	%20
Metal astunak	%5.5
Pestiziden hondakinak	%10
Migrazioak	%7




Mikotoxinek eragindako kutsaduren artean, kasu askotan (**%86**) **Aflatoxinek** eragin dute kutsadura eta, horrelakoetan, **pistatxoak** kutsaduren **% 32** eragin du. Bestalde, kasu gehienetan (**%78**) pistatxoak **Iranetik** zetozen. Bigarren produktu garrantzitsua **kakahuetea** izan da. Honek aflatoxinek eragindako kutsaduren **%26** eragin ditu. Jatorrizko herrialdeak hainbat izan dira, ez dago nabarmendu beharreko herrialderik, alegia.

Kutsadura biologikoei dagokienez, **Salmonella sp.k** kutsaduren **% 32** eragin ditu. Kasuen **%8,5** *Salmonella enteritidis* espezieak eragin ditu, eta **oilaskoak** sarritan (**%80**) hartu du parte. Halaber, **arrautzak** ere hartu du parte kutsadura kasuetan. Produktu biak Europakoak izan dira gehien bat (kasuen **%75**). Kasuen **%6,5** *Salmonella typhimurium* espezieak eragin ditu, eta **txerri-haragiak** kasuen **%75etan** hartu du parte. Haragiaren jatorria **europarra** izan da kasu guztietan (**%100**). Talde horretako protagonista *Salmonella* sp. izan da (kasuen **%85,5**). Eta alerta gehien eragin dituztenak (**%30**) **belar aromatikoak** izan dira. Belar gehienak Asiakoak izan dira (**%80**).

Kutsadura kimikoari dagokionez, **Koloragarriak eta Gehigarriak** izan dira eragile nagusiak (kasuen **%43**), eta **gehigarriak** kasuen **%65,5**etan izan dira errudunak. Horrelakoetan, **zukuak eta frutazko karameluak** izan dira garrantzitsuenak (**%42**), eta horien **%38 Asiakoak** eta **Afrikakoak** izan dira. Bestalde, **Sulfitoak** ere kutsadura kimikoen eragileak izan dira (kasuen **%18,5**); eta horien eragile zuzenak (kasuen **%71**) **ganbak eta karramarroak** izan dira, asko eta asko **Afrikakoak(%41)**.

Micotxinak/Biotxinak	321	Aflatoxinak	276 (%86)	pistatxoak	88(%32)	Iran	69 (%78)
				kakahueteak	72 (%26)	Txina	25 (%35)
Kutsadura biologikoa	183	Salmonella sp.	59 (%32)				
		<i>S enteritidis</i>	5 (%8,5)	oilaskoa, arrautzak	4 (%80)	Europa	3 (%75)
		<i>S.typhimurium</i>	4 (%6,5)	txerria	3 (%75)	Europa	3 (%100)
		<i>Salmonella sp.</i>	50 (%85,5)	belar aromatikoak	15 (%30)	Asia	12 (%80)
Kutsadura kimikoa	205	Koloragarriak eta Gehigarriak	87 (%43)				
		Gehigarriak	82 (%65,5)	zukuak eta gozokiak	24 (%42)	Afrika	9(%38)
				frutazkoak		Asia	9 (%38)
		Sulfitoak	38 (%18,5)	ganbak, karramarroak	27 (%71)	Afrika	11 (%41)
Metal astunak	51	Mercurioa	32 (%63)	marrazoa, ezpata-arraina	21 (%66)	Espainia	17 (%81)

Kutsatutako produktuen jatorrizko herrialdea hurrengo izan da:



Asiari dagokionez, kutsaduren %36k **Txinan** izan dute jatorria, eta ondoren **Iranen** (%19k). **Europari** dagokionez, jakinarazpen gehien **Turkiak** (%28) eta **Espainiak** (%21) eragin dituzte. Azkenik, Afrikako kontinentean, **Nigeria** nabarmendu behar dugu (%22); eta Ameriketean, aldiz, Estatu Batuak (%44).

Azkenik, Europako Erkidegoaren barruko jakinarazpenen portzentajea hurrengoia izan zen:

